

MEMORIA - 5. edizioa




be veggie!

8 | 9 | 10

**ABENDUA
DICIEMBRE**

FICOBA



INFORMAZIO OROKORRA

DATU NAGUSIAK

Edizioa: 5

Data: 2023ko abenduak 8-9-10

Bisita kopurua: 6.960

Erakusketari kopurua: 69

Erakusketa eremua: 491 m²

Ordutegia: ostirala eta larunbata 11:00etatik 20:00etara, igandea
11:00etatik 19:00etara

Web gunea: beveggie.eus

69 erakusketari
6.960 bisita

Sarrera doakoa izan da, aldez aurretik izena emanda, bai online azokaren aurretik edo bertan jaialdira iristean.




ERAKUSKETARIAK

69 erakusketari hartu dute parte Be Veggie-ko 5. edizio honetan:



ERREPRESENTATUTAKO SEKTOREAK


2023ko edizio honetan **parte hartu duten 69 erakusketarien artean**, sektore hauen partehartzea nabarmena izan da:



(enpresa edo elkarte bakoitzak sektore bat baino gehiagoren parte izan daiteke).

JATORRIA

Erakusketarien jatorria aztertuz, parte hartu duten enpresa eta erakundeen %45a Euskadi eta Nafarroatik datoz, gainontzeko %55a estatuko beste erkidegoetatik eta Frantziatik etorri dira, azken honetatik totalaren %12a izanda.



ASEBETETZE MAILA

erakusketarien

%75^a
azokaren
emaitzekin
pozik daude

Erakusketarien %75a azokaren emaitzekin pozik edo oso pozik daude. Hauen %87ak jaialdiaren hurrengo edizioan berriro parte hartuko luketela baieztatu dute.



FAKTURAZIOAREN INGURUKO DATUAK ETA BISITARIEN BATEZBESTEKO GASTUA

Bisitarien artean egindako inkestan jasotako datuen arabera, honako ondorio hauek lortu ditugu:


Bisitarien batezbesteko estimatutako gastua azokan 44,90 euro izan dira.

Inkesta honetan jasotako datuen arabera, azokan salmenta zuzena egiten ari ziren erakusketariek batezbesteko fakturazioa 4.200 eurotakoa izan zela estimatu dezakegu.

Kontutan izan behar da, salmenta hauek soilik azokan zehar egin zirela, beraz, ez ditu kontutan azokaren ondoren egingo diren salmentak, azokari esker lortutako marka eta produktuen inguruko ezagutzaren ondorioz.

Azokan salmenta zuzena egin zuten erakusketarien fakturazioa 4.200 eurotakoa izan dela estimatzen dugu.





be veggie!

EGITARAUA ETA JARDUE-

Be Veggie-ko 3 egunetan zehar **29 proposamen jarri dira bisitarien eskura**, eta 2.138 pertsona hauetaz gozatu ahal izan dute guztira, jarduera guztiak kontutan izana.

BERRIKETAN | haxe hitzaldietarako gunea da, eta baita eguerdiko DJ sesioak eta arratsaldeko kontzertua ospatu den gunea. Eremu honetatik 736 pertsona dirau dute, eta lehen mailako edukiaz gozatu ahal izan dute.



SUKALDEAN | showcooking-ak egiten diren gunea da, eta bertan, bisitariak, erreze- ta berriak ikasteaz a parte, sukaldariek prestatutako janaria dastatu ahal izan dute ere, 435 pertsona jarduera honetaz gozatu ahal izan dute.



ZOZKETAK | 100 euro balioko 3 erosketa bono zozketatu dira azokan zehar. Honetaz a parte, Euskadiko jatetxe beganoekin harremana estutzeko asmoarekin, 100 euro balioko 2 bazkari7afari zozketatu dira ere.



HAURRENTZAKO JARDUERAK | Jaialdiaren edizio honetan, haurrei zuzendutako jarduerak ospatu dira ere, familien bisita errazteko. Marrazketa tailerrak, aurpegi margoketa eta baita taldeko mural batean parte hartzeko aukera izan dute. 323 haur parte hartu dute jarduera hauetan eta hauetatik 123 aurpegi markotarekin euren aurpegiak apaindu dituzte.



YOGA DAY | igandean 11.30etan Vinyasa Flow praktika saioa ospatu da, María Eskitxabel-en eskutik. 42 pertsona parte hartu dute klase honetan.



FOTOMATOIA | Ekitaldi osoan zehar, fotomatoi bat egon da, bisitariek argazki bat atera eta azokaren oroigarri bat eraman ahal izateko. Argazki horiek sare sozialetan partekatzeraz animatu ditugu bisitariak, interesa sorrarazteko, eta 100 euroko balioa duen afari bat zozkatu da egin dutenen artean.



KOSMETIKA NATURAL TAILERRAK | Larunbata eta igandean zehar, Recicla Birziklatu elkarteak, 'El Rincón de Laida y Rut'-en eskutik, kosmetika natural eta begano tailerrak antolatu ditu. 60 pertsona parte hartu dute aktiboki tailer hauetan, masaje barra bat eta hortzetako natural bat prestatuz.



JARDUERA: ADI! Itsas hondakinak | Mater-en eskutik, hurrei zuzendutako itsas hondakinei buruzko tailer bat antolatu da. Be Veggie-ren ardatzetako bat jasangarritsauna denez, jarduera hau programaren parte izan da, informazio eta jolas gun bat izanda. Jarduera hau larunbata 8an izan da, 17etan.




ERAKUSKETA ETA WORKSHOP-a - FASHION REVOLUTION |

FASHION
REVOLUTION
Euskadi

Moda azkarrek duen eraginari buruz kontzientziazteko eta ikusarazteko asmoz, aurten Fashion Revolution Euskadi-rekin elkarlanean aritu gara ere, Be Veggie-ko bisitariei mezu garrantzitsu honen berri emateko, erakusketa baten eta workshop baten bidez:

ERAKUSKETA:

Zer da moda beganoa eta krudelkeriarik gabekoa? Zer abantaila eta desabantaila sorrarazten ditu iraunkortasunaren arloan? Zeintzuk dira merkatuko ziurtagiri nagusiak? Erakusketa honetan, kontzeptu horiek guztiak azaldu dira, eta ehungintzari aplikatutako animalia-jatorriko material nagusiei buruz hitz egin da, bai eta ingurumenean zein gizar-tean duten eraginari buruz eta dauden alternatibei buruz ere. Bisitariek MaterialDriven materiotekaren ehungintzan erabilitako material beganoen lagin bat aurkitu ahal izan dute, animalia-jatorriko materialei alternatiba gisa.



WORKSHOP-a: KOMBUCHA, larru begano berria. Adele Orcaja-k eskeinitako workshop praktikoa, 15 pertsonentzako.



TXAKURRAK BE VEGGIE-n |

Bigarren aldiz, Be Veggie jaialdira bertaratu diren guztiei txakurrekin Ficoban sartzeko aukera eman zaie.

2022ko lehen esperientzian 100 txakur sartu zirela zenbatu zen, eta, horren ondoren, aurreko gorakada nabarmena izan da txakurrek lagundutako pertsonen bertaratzean, 175 txakur igaro baitira Be Veggietik.

Horrek agerian uzten du gure bizitzaren parte diren 4 hankako lagunekin aisialdia ere partekatzeke interes argia.

Erakusketazokaren kanpoko aldean, gune bat prestatu da, beren beharrak egin ahal izateko, poltsak jarri dira erabiltzaileen eskura, eta espazioaren garbiketa orokorra egin da.



ERRONKA GARBIA

Hasiera-hasieratik, Be Veggie-k iraunkortasuna izan du ardatz, bai jaialdiaren programari dagokionez, gai hon hitzaldi eta jardueretan lekua emanez, bai ekitaldiaren kudeaketan. 2021-eko edizioaz geroztik, Be Veggie-k ERRONKA GARBIA zigilua lortu du.




ERRONKA GARBIA
EVENTO AMBIENTALMENTE SOSTENIBLE

Be Veggie 2023k ere Erronka Garbia zigilua lortu nahi du. Be Veggiek ingurumenaren aldetik iraunkorra den ekitaldi bat egiteko erronka hartu du bere gain. Ildo horretan, helburu hauek ezarri dira: hondakinak murriztea eta kudeatzea, eta bertaratutakoen mugikortasunean jasangarritasuna neurtzea.

Zigilua lortuz gero, hau lortzen duen ekitaldiaren hirugarren edizioa izango litzateke. Modu honetan, bizi- eta kontsumo-estilo jasangarria sustatzeaz gain, jaialdia bera ingurumen-jasangarritasuneko irizpideei jarraituz kudeatzen dela berretsi egingo zen. Besteak beste, nabarmentzekoa da aurten moketaren erabilera enpresa erakusketarien standetara eta hitzaldi-guneetara mugatu dela, eta ondoren birziklatu egingo dela.

BISITARIEN MUGIKORTASUNA



Grafikoak Be Veggie-ra bertaratutako bisitarien mugikortasunari buruzko informazioa eskeintzen du: %31a partekatutako kotxean etorri da, %25a oinez ala bizikletan, eta %14a garraio publikoan.

ANTOLAKUNTZA ETA KOLABORAZIOAK

Ficoba-ko lan talde profesionalak antolatu du Be Veggie, Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Iraunkortasun Departamentuaren eta Turismo Departamentuaren laguntzarekin.

Gainera, Be Veggie-k honako hauen kolaborazioa izan du: UVE (Unión Vegetariana Española), ProVeg, Vegana, Fashion Revolution Euskadi eta Euskotren.

Patrocinan



Colaboran



GK GREEN FASHION BE VEGGIE-n



GIPUZKOA KLUSTERRA

GIPUZKOAKO MODA IRAUNKORREKO KLUSTERRA
CLÚSTER GIPUZCOANO DE MODA SOSTENIBLE



Gipuzkoako moda jasangarriaren Klusterraren partehartzea nabarmendu nahi dugu aurren ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Iraunkortasun Departamentuaren parte dena, eta Be Veggie hedatze plataforma bezala aukeratu duena.


GK Green Fashion Klusterraren parte diren Wave Back Project, Emi Artesanía, Kurmi Kids eta Giovanna Bittante markak Foru Aldundiaren stand-eant hartu dute parte, moda jasangarriaren arloan egiten duten lanari ahotsa jarritz.






BISITARIAK

BISITARIAK | JATORRI OROKORRA



Azokara bertaratutako publikoaren %80,1a Gipuzkoatik etorri da, eta nabarmentzekoa da Frantziako Hego Mendebaldetik etorritako bisitarien %8a. Publikoaren %10a gainontzeko Euskadiko probintzietatik eta Nafarroatik etorri da, eta %3tik gertu Estatuko beste erkidegoetatik etorri dira.

GIPUZKOAKO BISITARIAK | ESKUALDEKAKO BANAKETA




Gipuzkoatik etorritako bisitarien %48a Bidasoa Behea-ko udalerrietatik etorri zen, Donostialdeatik etorritako %27az jarraituta.




Be Veggie-n zehar, bisitariei inkesta bat egin zaie, bere feedback-a jasotzeko eta bisitarien perfila hobeto ezagutzeko. Hauek dira jasotako datuen artean nabarmenak direnak:


Beganoa zara?




Zenbat diru gastatu duzu?



Zein da zure adina?



Jaialdiarekin asebetetze maila orokorra



Inkestatutako publikoaren %35,5a beganoa ez dela adierazi du, Be Veggie-k jailadiak zabaltzen duen filosofiarekin guztiz bat ez datozen pertsonak erakartzeko duen gaitasuna isladatzen du, jaialdiaren helburuetako bat.

Aipagarria da publikoaren %59,5a 45 urte baino gutxiago dituela, eta inkestatutako bisitarien %84 azokan zerbait erosi dute. Galdeketa erantzun duten pertsonen %31,2a erosketetan 50 euro baino gehiago gastatu dituzte.

Azkenik, inkestatutako publikoaren %87a Be Veggie-k eskeini dien proposamenarekin pozik edo oso pozik geratu da.



PUBLIZITATEA ETA PROMOZIOA

PUBLICIDAD EN CALLE

-1500 kartel itsatsi dira honako udalerri hauetan: Donostia, Irun, Orereta, Hendaia, Donibane Loitzune, Baiona, Bilbo, Iruña, kontu berezia izanez gazteak topatzen diren gunetan (unibertsitateak, alde zaharrak e.a)

-Euskotren: ticket salmenta makinetan Be Veggie-ren irudia ezarri da eta Bilboko Alde Zaharreko geltokiko pantailan bideo promozionala jarri da ere. Honetaz gain, topoaren ibilbidean 6 MUPI jarri dira.

-6 MUPI Donostiako autobus geltokietan, Tolosa Hiribidean.

-32 MUPI Irun-en zehar.

-Irudia promozio turistikorako pantailetan, Loiu eta Hondarribiako aireportuetan.



POSTAZKO BIDALKETAK ETA MAILING

-Posta bitarteko bidalketa Euskadiko 100 denda/ beste merkatalgune espezializatueta-ra, jatetxe beganoetara e.a, jaialdiaren posterra barne.

-Mailing kanpaina (mailchimp): 6 newsletter (bisitari orokor eta profesionalei zuzenduta) azaroan zehar eta abenduak ekitaldia baino lehen 20.000 kontaktu bereizi baino gehiago dituen datu basera.



PRENTSA ESPEZIALIZATUA

EDIZIO FISIKOAK:

Bioeco actual + Bueno y Vegano 6 insertzio, iraila, urria eta azaroan zehar, eta Bueno y Vegano-ren azalean abenduan.

ONLINE:

Bioeco actual + Bueno y Vegano banner-a web-ean eta urria, azaroa eta abenduko newsletter-etan.

Vida natural berrien buletinean

Vegetus (UVE-k editatzen duen online aldizkaria): 2 insertzio
Vegconomist

- sponsored post eta 4 argitalpen
- banner-a web-ean eta newsletter-a



IRRATIA

233 insertzio:

- Euskadi Irratia
- Euskadi Gaztea
- LOS 40 (San Sebastian, Eibar, Bilbao, Vitoria)
- NRJ Biarritz
- Euskal Irratiak (Gure Irratia, Antxeta Irratia, Xiberoko Irratia, Irulegiko Irratia)

ONLINE PUBLIZITATE KANPAINA

Be Veggie-ren hedapenerako online publizitate kanpaina bat egin da, Google-en, publizitate programatikoa, sare sozialetan (Facebook, Instagram, TikTok, YouTube) eta Spotify-en. Hauek dira kanpainaren emaitzen artean nabarmenenak:

INPRESIOAK	2.190.642
ERABILTZAILE BAKARRAK	792.102
CLICK-ak	14.828
CTR-a	0,66%

Orokorrean, kanpaina digitalak %26 batean gaintitu du ezarritako erantzun helburua. Kanpainaren erantzun ratioa %0,66a izan da.



HEDABIDEETAN IZANDAKO INPAKTUAK

Be Veggie-k 63 inpaktu izan ditu heabideetan, eta inpaktu hauen artean artikulua, elkarrizketak, aipamenak, telebista erreportaiak eta irrati elakrreizketak egon dira. Hauen artean, ostirala 8an ETB2-ko teleberrian egindako erreportaiak eta Antena 3-eko estatu mailako teleberriaren edizioan azaldutako erreportaiak, baita Euskadi Irratiko Amarauna saioan ere.

IRRATIA	17
TELEBISTA	3
PRENTSA (PAPERA / ONLINE)	43



Actualidad Vegana



Be Veggie, el festival vegano de Euskadi

Lo + Trend 04/12/2023

Del 8 al 10 de diciembre en Ficoba, en Irún, se celebra el festival vegano Be Veggie con un amplio programa de actividades dirigidas, por supuesto, a todas las personas veganas, pero también a...

Leer más

EL DIARIO VASCO

Irún

Las visitas a Be Veggie a crecieron un 40% respecto al año pasado y rondaron las 7.000

El 75% de los expositores y el 85% del público se manifestaron satisfechos o muy satisfechos con el desarrollo del festival vegano de Ficoba



El nutricionista Aitor Sánchez fue uno de los conferenciantes destacados en esta quinta edición del festival vegano de Ficoba, Be Veggie.



Cerca de 7.000 personas han participado en Be Veggie

12/12/2023

La propuesta de un estilo de vida vegano, 100% vegetal, libre de explotación animal y que promueve la sostenibilidad medioambiental, suma cada vez más adeptos y genera interés en el resto de la población. Así lo ha puesto de manifiesto esta quinta edición del festival vegano **Be Veggie**, celebrado del 8 al 10 de diciembre en Ficoba, que ha cerrado con cerca de 7.000 visitas, un 40% más que en 2022, en el que la participación ascendió a cerca de 5.000 personas.



SARE SOZIALAK

Hementxe Be Veggie-ko sare sozial nagusietan lortutako emaitza batzuk:

INSTAGRAM

Be Veggie 2022 geroztik, Instagram-eko komunitateak izan duen hazkundera %16,40ekoa izan da, 3.697 jarraitzaileak lortuz behin ekitaldia bukatzean. Ekitaldian zehar, abenduak 8 eta 10a bitartean 261 jarraitzaile berri lortu ditugu.

Hauek dira aipatzeko datu batzuk:

-153.073 bisualizazio lortu dira


-3.308 interakzioa lortu dira story eta reel bitartez

-Egun bakoitzeko lortutako **irismena (edukia ikusi duten pertsona kopurua)** egun bakoitzeko hau izan da, eduki motaren arabera:

* post bitartez : 749

* reel bitartez: 1274


* storiak: 269,08



TIKTOK


Aurten TikTok-eko kontuan edukia partekatu da ere.

164 jarraitzaile eta 848 bisualizazio lortu dira.



BE VEGGIE 2023 EN IMÁGENES







ESKERRIK ASKO !

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Jasangarritasun
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Sostenibilidad

